



Areatza

Iantzen

e u s k e r a z

Azaroa/05

Euskera, denon ardura

Elkarrizketa: Uztargi
Herri Plataforma

2-3. or.

Garbitasuna, Ikastaroak,
Mugikortasuna...

5. or.

Ruper Lekue: Musika
Bandaren Zuzendaria

6-7. or.

**UZTARGI –
HERRI
PLATAFORMA**

Nahiz eta gauza batzuk ondo egin direla aitortu, ezker abertzaleko zinegotziak oso kritikoak dira Areatzako udalak egindako politikagaz.

“Herritarren partaidetza zuzena beharrezkoa da”

Uztargi Herri Plataforma une berezi baten jaio zan.

Bai. Euskal Herriko gizarte sektore baten oinarriko eskubideak urratu dirala ikusita Estatu Espainolek etorritako debeku, ilegalizazio, inposaketa eta errepresio mota guztiak gainditutako apostua eginez. Gure borondatea finkoa da, eskubide guztiak, euskal herritar guztientzat, Euskal Herri osoan berreskuratuteko. Horrela ba, kandidatura gaztea osatuten genduan andrazko eta gizonezkoek, 124 boto jasoz, hiru zinegotzi lortu genduzan: Unai Lamikiz, Jon Ordeñana eta Saioa Larrea.

Zein da taldearen egitaraua edo proposamea herriaren alde lan egiteko?

Gauza asko dagoz egiteko. Udalak, behar bezala funtzionatzeko, ezinbesteko baldintza batzuk be-

te behar dirala uste dugu, eta gaur egun ardatz horien gabezia ikusten dugu udalean: Zinegotzi guztiek komisiñoetan parte hartu beharko leukie eta gure herrian, Gobernu Batzordearena baino ezta egiten. Gainera, gai garrantzitsuak jorrratuten diranean herritarren partaidetza eta hartuemon zuzena garrantzitsuak direla uste dugu.

Azken aldi hontan lan asko egin dira, errepideetan, azpiegituretan,... Zerbait faltan botatzen dozue?

Asko kezkatzen gaituen alorretako bat etxebizitzarena da. Urtero-urtero gure herriko biztanleria



beherantz doa, besteak beste hori saihestutako benetako proiekturik ez dalako egin. Gure ustetan, etxebizitza sozialak eta babestutakoak lehentasuna euki behar dabe, hala nola alokairurako egokitu, gazteek etxebizitza bat eskuratutako aukera handiagoa eukiteko.

Herritarren txokoa

Aldizkari hau areatzatarren txokoa izatea nahi dugu. Horretarako zure laguntza behar dugu. Inolako itaunik, iradokizunik edota istoriorik azaltzeko badaukazu, bidali Areatza Euskeraz Lantzen zure aldizkarira, bai posta arruntaren bidez, bai posta elektronikoa erabiliz.



Gudarien Plaza 7, 48143 Areatza
areatzalantzen@hotmail.com

Baina eraikuntza proiektuak martxan dagoz jada...

Egia da hainbat etxebizitza eraikiko dirala herrian, "Sector Residencial III" deritsona, Bizkailurregaz adostutakoak (hitzartutako salneurrikoak), Goikokale 14 eta 16, BOE-koak, baina BOE-koek aparte, besteak gazteriaren zati handi bateri handi geldituko jakolakoan gagoz eta horietatik gehienak ez dira alokairuan egongo, salmentan baizik. Beste alde batetik, Areatzan, azkenengo datuen arabera, 102 etxe huts egoteak asko kezkatzen deuskun arazo bat da eta horregaitik kasku zaharrek etxebizitzak barriztuteko erreztasunak emotea beharrezkoa dala uste dogu.

Agenda 21-aren inguruan ze pentsaten dozue?

Danok gagoz ados garapena, ingurugiroa eta natura errespetatuz egin behar dala baina "Tokiko agenda 21" belarrira ondo egiten dauan premisa bat baino ez da bihurtuten daukaguzan etxe hutsak bete ordez, herriko landa, solo zein

"Langilegoaren kontratazioan ez da euskera maila bermatzen"

Uztargiren ustez, Areatzan oraindik esfortzu handiagoa egin behar da euskararen erabilera buktatzeko. "Euskera aldetik, 25 urtetik hona egon dan aldaketa ikusita pozik egon beharko ginatkeela esan euskun azkenengo plenoan alkate jaunak (espainolez) baina guk egoera ez dogu hain positiboa dala baloratzen: plenoak adibidez, espainolez izaten baitira (25 urtetik hona 1.aldiz), udal langilegoaren kontratazioan ez da euskara maila bermatzen, ekintza batzuk erdera hutsean egiten dira, batzarrak... Aipatutakoa da, es-

kualde mailako euskera plan bat garatuteko asmo politikoa baegoala, EBPN (Euskera Biziberritzeko Plan Nagusia), baina bertan behera gelditu zala eta jaso zan dirulaguntza bueltatu behar izan zala. Arratia mailan Plana garatuteko aukera egoanean, ez eben gura eta orain Herrirako plan berezia garatutekotan gabilz. Gainera, azkenengo urtetan Mankomunitatean martxan ibili dan Euskera Zerbitzua desagertu egin da, beraz, eskualde mailan ez daukagu euskera ordezkatuten dauan organu publikorik".

berdeguneak hormigoiez beteten diranean.

Eta honegaz lotuta, herrigunea oinezkoentzat bihurtutea, kotxerik gabeko eguna eta irisgarritasuna ideia parebakoak irudituten jakuz baina autoentzako aparkalekuak eskasak izanik, oraindik bizikletentzako ez dago bat bera ere ez.

Uztargiren ustez Areatzako bizitza kulturala nolakoa da?

Kultura aldetik adibidez, musikagaz lotuta dagoan ekintza konkretu bat lez ikusten genduan eta herritarrentzat alternatiba gitxi ikusten genduzan jaietan egiten diran ekintzetatik aparte. Esan beharra dogu, orainarte egin diran ekintza kultural alternatibo danak (Gaita eguna, udako musika jaialdia, maskarada, gabonetako astea, artzain-txakurren erakustaldia, Kukubiltxo...) Uztargik bideratu dauazala eta EAJri dagokion zinegotziaren axolagabekeriaren ondoren, ez dogu zuzentzat jotzen kontzejalia hori emon ez izatea.



"Etxebizitza sozialak eta babestutakoak lehentasuna euki behar dabe"

EBPN: gure konpromisoak

EAEn gero eta erakunde gehiagok abiatu dira Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia lantzen. Erakunde horien artean, Areatzako Udala dugu

Areatzako Udaleko ordezkariak Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko hizkuntza-politikako arduradunekin batzartu ziren. Bertan izan ziren, besteak beste, Areatzako alkatea, Josu Basozabal; Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Patxi Goenaga, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara sustatzeko zuzendaria, Gotzon Lobera.


Euskara biziberritzeko funtsezkoak diren hiru helburu estrategikoekin bat egin zuten hiru erakundeetako ordezkariak: Euskara, belaunz belaun eta



etenik gabe TRANSMITITZEA, eskola, euskaltegi eta familia bidez, katea eten ez dadin. Euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolaz kanpoko ERABILERA-eremuetara zabaltzea, teknologia berrietara, aisialdira, kirolera, erakundeetara, erlijio-saioetara, enpresetara eta abar. Hizkuntza etengabe ELIKATZEA, komunikabide, liburu, publizitate eta kulturgintzaren bidez Areatzako herritarrek eroso, erraz eta kalitatez egin dezaten euskaraz. Plan Nagusia betetzeko, berriz

hamar konpromiso hartu zituen bere gain Areatzako Udalak Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean:

- 1) EBPNren garapen teknikorako solaskidea izendatzea.
- 2) Orain arte Areatzako udalerrian egin diren ekintzen datu-bilketa egitea.
- 3) Diagnostikoa aztertu eta osatzea.
- 4) Udaleko Erabilera Plana egitea.
- 5) Plan Estrategikoaren iraupena erabaki eta proposamena luzatzea.
- 6) Euskara Aholku Batzordearen gaineko proposamena egitea.
- 7) Euskara Zerbitzuaren gaineko proposamena egitea.
- 8) Euskara Biziberritzeko Planaren aurrekontuaren proposamena egitea.
- 9) Komunikazio-planaren zirriborroa egitea.
- 10) Plan Estrategikotik abiatuz, lehenengo urteko Kudeaketa Plana osatzea.



Harreman-sare euskaldunak egituratu


Plan estrategikoari esker, erakunde barruan eta udalerrian eragin nahi da. Erakunde barruan, Administrazioako Euskara plana bultzatuz eta Euskara Zerbitzua sendotuz; udalerrian, berriz, hiztunen euskara gaitasuna ziurtatuz, harreman-sare euskaldunak egituratuz eta euskarazko produktuak eta zerbitzuak eskainiz edo produktu-zerbitzu horien.

Animaliak eta Garbitasuna jokabide zuzena

Azken denboraldi honetan gertatutako hainbat jazoeren inguruan, beti ere jakinik gutxiengo baten jokabidea dela, auzotar guztiei zor diegun errespetua aintzat hartzen ez dutenak, ondoren jaso diren puntuak azpimarratu nahi ditu Udaletxeak:

- **Etzeko animaliak.** Etxeko animalia-aren edukitzaillea izango da animaliak sortzen dituen kalte, hondamen eta enbarazoen erantzule, galdu zein animaliak ihes eginda ere. Hiri barruko bide eta gune publikoetan, bai eta eraikin kolektiboen gune komunetan ere, txakurrak kontrolatuta eramango dira beraien ezaugarrietara egokitutako kate edo uhal bati lotuta-gehenez 2 metrokoa.

- **Edukiontzietan etzeko hondakinak uzteko ordutegia:** Herriko hainbat tokitan hondakin organikoak jasotzeko lurrazpiko edukiontzia ezarri ditugu. Hala ere, gogorazi nahi dizuegu hondakinak uzte-



ko ordutegi bat dagoela eta berau errespetatu behar dela inguruan usain txarra eta zikinkeria ekiditeko: Zapatu eta jai egun bezperetan izan ezik, satsak eta etxe-tako hondakin organikoak gaueko 8etatik aurrera eta hurrengo goizeko 7:30ak arte

Lanak amaitu dira

Herrian egindako lanak amaituta eta uda igarota, hilabete batzuetarako normaltasun egoerara itzuli gara. Aurreko bando baten, 2004ko irailaren 17ko datuz, Alkatetzatik argi azaltzen zen Udal Korporazioak poliki-poliki herria oinezko bihurtzeko asmoa zuela denon bizi kalitatea hobetzeko -jendearentzat oinezko gune gehiago irabaziz eta aldi berean segurtasun arrazoiek bultzatuta (anbulantziak, su hiltzaileak igarotzeko...). Hori guztia jakinik, auzotar guztien-gana zuzentzen gara trafiko seinaleak eta aparkatzea antolatuz jarri diren lorategi-hesi eta bolardoak errespetatu ditzazuen eskatuz.

utziko dira edukiontzietan, satsak jasotzeko kamioia ordu horretan igarotzen baita.

Igerilekuak zaharberrituak

Udalak hitzarmen bat sinatu du Aldundiarekin, udal igerilekuak zaharberritzeko lanak finantzatzeko. Lanen kostua 450.000 eurokoa izango da; horietatik, 300.000 euro Aldundiak eta BBK-k jarriko dituzte. Arazketa sistema hobetuko da, bai eta instalazioen kalitatea ere.

Mugikortasun Foroa

Agenda 21 delakoaren markoan, Mugikortasunari buruzko Foro berezia eratuko da, eta, bertan, Udalak, agente sozialek eta gai honekin sentsibilizata dauden herritarrek parte hartuko dute. Sarbideei, autoen trafikoari eta abarri buruzko politikak aztertuko dira.

Geriatrico Laguntzaileak

23 emakumek eman dute izena Mendikoi sozietate publikoak Gorbeialde Landa Garapeneko Elkartearen lankidetzarekin antolatutako Geriatrico Laguntzaileen ikastaroan. Ikastaroaren helburua instituzio sozialetan pertsonen arreta soziosanitaria eskaintzea da.

Areatzako Musika Bandaren ibilbidean kalitatea da nagusi. Ruper Lekue arrakasta honen arduraduna da.



“Gure bandak duen izakera ez dator bat txapelketakaz”

Ruper Lekue

Areatzako Musika Bandaren Zuzendaria

Noiz sortu zan Areatzako Musika Banda?

1983. urteko udaberrian Areatzako “Kaixo” fanfarriaren ardurara artu neban. Momentu horretan, aipatutako fanfarria, hogei-eren bat lagunek osatuten eurien, batzuk “Agrupación Artística Villaresan” ibilitakoak izanik. Honeik, jaietan eta erromerietan, kalez-kale aritzen ziran jo ta ke. Handik hilabete batzuetara zeo-

zer “serioagoa” egitea lortu behar genuela eta, musika eskola eta banda bat antolatuteko proposamena egin neuntzien. Proposamen hori fanfarrikoaren artean onartua izan zenez martxan hasi giñen.

Arratiako Musika Eskolan oso garrantzitsua izan da.

Bai. Hasiera batean musika eskolaren finantziazioa (irakasleak, materiala...) “Kaixon” ardurapean gelditu zan, Areatzako udalak behar ziren diru laguntzak emoten hasi arte. Guraso elkarte bat atara zan, gaur egun ezagututen dogun “Arratiako Musika Eskolan” sartu arte, bere kudeaketaz arduratuteko.

Era berean, Kaixon ibilitako batzuekaz, musika eskolako ikasleakaz eta Bizkaiko herrialde batzuetatik etorritako musikoakaz gaur egungo “Areatzako Musika Banda” martxan jarri gendun.

Zenbat kide dagoz momentu honetan?


Berrogeitabost lagunek osatuten dabe momentu honetan.

Nongoak dira musikariak? Areatzakoak? Arratiakoak?

Areatzako Banda, bertakoak, Arratiakoak eta Bizkaiko hainbat lurraldeetakoak direlarik.

Ze instrumentutaz osatuta dago taldea?

Banda, haizezko eta perkuziozko instrumentoz osotuta dago.



Zein da jorratzen dozuten errepertorioa?

Era guztietakoa. Sinfonikoa, opera, zarzuela, zinema musika, euskal musika...

Ze proiektuak dekozuez?

Gure helbururik inportateena banda orain arte egon dan moduan mantentzea da. Horrez gain agertzen diren ekitaldi eta kontzertuetan parte hartu, herrian bertan egiten diren kontzertuak mantendu, beste ekintza berezi batzuk antolatu (guk ahal dogun neurrian).

Zelan antolatzen dira entsaioak, jendea ez baita profesionala?

Herriko talde bategaz astero behin, barikuetan gehien baten, egiten da entsaio bat. Gero noizbehinka eta hau zapatu arratsaldetan izaten da, kanpotik etorten dan jendeagaz.

Gatza da herri musika-banda bat zuzentzea?

Banda honek dituen ezaugarriak eta diru sarrera eskasa kontutan izanik, zuzentzea baino dagoan moduan mantentzea da gatzena.



Zenbat urte daroazuz zuzendari?

Areatzak Bandan hogeitabi urte daroadaz. Lehenik hasita nengoen Igorreko eta Galdakaoko abesbatzak zuzentzen.

Zein da bereziki gororatzen dozun ekitaldia?

"Areatzatik doinuka" emanaldia Areatzan aurkeztu genuenean.

Txapelketetara aurkeztea gustukoa dozue?

Ez. Gure bandak duen izakera ez dator bat txapelketakaz. Guk

kontzertuetan parte hartzea nahiago dogu.

Sariak irabazi dozuez. Zeintzuk?

Batzuk baditugu. Adibidez Zallako txapelketan urte batzutan parte hartu ondoren 1996. urtean 1go saria lortu genuen. Aurreko urteetan 2. eta 3. sariak lortu genituen ere.

"Kanpora ateratzea oso positiboa da"

Ruper Lekuek Areatza eta inguruko herrien kultura-musikala nahiko ona dela esaten dau. "Gaur egun eta bailaran daukagun musika eskolari esker kultura musikala gehituz doa. Hainbat gazte doa bailara osoan eskola honetara eta parte hartzen dau eskolan antolatuta dituzten taldeetan (koro, banda...). Taldeekin bai Arratiako herrietan bai beste musika eskolekin harremanak sendotzeko egiten dabezen ekitaldietan kapora ateratzen dira eta hau oso positiboa da", diño Ruperrek.



Naiara eta Nerea, bikote perfektua

Areatzako 24 urteko bikiak Euskal Herriko Trontza Txapelketa irabazi dute. Eta urtebete baino ez daramate herri kirol honetan entrenatzen. Hori da marka.



Adituen arabera, bikotekidea-ekin elkar ulertze ezin hobea izatea funtsezkoa da trontzolari ona izateko. Naiarak eta Nereak, Areatzako 24 urteko bi gazteek, bide luzea daukate eginda horretan, bikiak dira eta. Elkarren arteko loturak eta ezagutzak emaitza ezin hobea izan dute Euskal Herriko Trontza Txapelketan.

Urtebete baino ez daramate herri kirolaren disziplina gogor honetan entrenatzen, eta dagoeneko hartu diote neurria. Lehenago saskibaloian aritu ziren, baina taldea desagertu egin zen eta erabaki zuten une egokia zela beste gauza batzuk probatzeko. Pabi Astondoa eta Julen Etxebarria entre-



natzaileen eskutik, eszeptikoenak ere zur eta lur utzi dituen erritmoan egin dute aurrera.

Uharte-Iruñan jokaturako Euskal Herriko txapelketan, Nafa-

roako hiru bikote eta Bizkaiko beste bat izan zituzten arerio; trontza amerikarra erabili zuten, hagin gehiago eta pisu handiagokoa.

Etorkizunean txapelak irabazten jarraitzeko asmoa dute. Ez dago batere txarto saskibaloiko baloiaren orde zerrarekin enberrari ekittea erabaki zuten aparteko kirolari hauentzat.